

# GOIATZ OIARTZABAL ETA MIKEL IRIZAR (Badalab)

## Euskaraz hitz egingo da 2037an? 2024-11-27



### PLAZA

**Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategiko Goiatz Oiartzabal eta Mikel Irizar izan genituen Jabetze Eskolaren lehenengo saioan. Garikoitz Goikoetxeak, aurkezpenean, esan zigun mundua aldatzen ari dela eta euskalgintzak ezin diola horri itzuri egin. Goiatzek eta Mikelek bete-betean heldu zioten egiten duguna munduarekin konektatzeko moduari, eta etorkizuna aurreikusteko ariketa konstantea egiteko proposamena egin ziguten.**

### ZAZPI JAUZI

**1.** Gure egitekoa hau da: Etorkizunean euskara erabiltzen jarraituko dugula bermatzeko **galderak probokatzea**. Posible baita une honetan nahitaezkoak iruditzen zaizkigun galderek ibilbide laburra izatea, eta, guk uste baino lehenago, baliozkoak izateari uztea.

**2.** Galdera berri horiek sortzeko, **gizartea irakurri behar dugu behin eta berriz**, ikuspegi batekin: etorkizun desiragarri bat lortzea. Estrategiak egokitzen aritu behar dugu etengabe. Mundua abiadura handian ari da aldatzen: begira “globalizazio” eta “digitalizazio” kontzeptuek nolako eraldaketa jasan duten azken urteotan.

**3.** Demagun, euskarari begira ari garela, ondorengo auziak ditugula une honetan esku artean:

- Gazteek euskarazko ulermen unibertsala lortu dute. Eta badirudi horri buruz hitz egiteko gogoia dutela. Ematen diegu behar beste aukera horretarako?
- Euskal identitatea krisian dago. Non eta norekin pentsatu behar dugu horri buruz?
- Euskalgintza askotarikoa eta aberatsa da, baina egitura ahula du. Zergatik da hori?

**Pentsamendua egoki eta denon artean garatzeko guneak** behar ditugu.

**4. Adimen kolektiboa da gakoa.** Adituei begira bizi gara, eta autoritatea aitortzen diegu; hala ere, aditua autoritatea bada, beti egon behar du kolokan. Elkarrekin pentsatu behar dugu.

**5.** Adimen kolektiboa biderako guneak eratzeke egiturarik egokiena **gobernantza partekatuak** eskaintzen digu. Eta horrek esan nahi du gune horretan boterea partekatu behar dela. Teorian, badakigu boterea partekatzea zer den, baina praktikan utopikoa izatera iritsi daiteke. Izan ere, foro partekatu bat sortzeak ez dakar automatikoki boterea partekatzea. Erabakimenean eraginik ez badu, hierarkia mantentzen den seinale.

**6.** Adimen kolektiboak auzitan jarri behar du ia dena, eta nonbaitetik elikatu behar du. Horretarako, gure burua behartu behar dugu **aliantza inprobableak** egitera. Ez-ohiko lankidetzak sustatzera, eta horien zerbitzura espazioak, tresnak eta esperientziak jartzera.

**7.** Hona, adibidez, auzitan jarri beharreko gakoetako bat: **hitz zehatz batzuk erabiltzeko dugun moduak hitzek duten potentzialitatea murriztu dezakete**. Esaterako, hitz egin dezagun aniztasunaz. Euskarari begira ari garenean, eta aniztasuna aipatzen dugunean, tranpa egiten dugu sarri: beste hizkuntza batzuek aritzen gara automatikoki, eta “arrotz” hitza eransteke arriskua izaten dugu. Ondorioz, ahaztu egiten dugu gure hiztun komunitatearen barruan jada badagoela nahikoa aniztasun: askotariko hiztunak gaudela bertan.